

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

50/2026 Mozioa, maiatzaren 13koa, Arabako egungo energia-krisiari aurre egiteko neurriak bultzatzeko

Arabako Batzar Nagusiek, 2026ko maiatzaren 13an egindako osoko bilkuran, honako mozio hau onetsi zuten:

50/2026 Mozioa, maiatzaren 13koa, Arabako egungo energia-krisiari aurre egiteko neurriak bultzatzeko.

Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote deialdi publikoak gehienez hiru hilabeteko epean atera ditzala, zertarako-eta:

1. 20 urtetik beherako ikasleei zabaltzeko garraioaren doakotasuna.
2. Energia-kontsumitzaile kalteberak diren familiei zuzendutako diru-laguntza programa bat sortzeko, Arabako tokiko energia-komunitateetan (CEL) parte har dezaten errazte aldera.
3. Arabako kontzejuetan tokiko energia-komunitateak bultzatzeko programa bat sortzeko, haien energia-subirantotasuna eta hurbiltasuna babestuz.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 13a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA